



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSARAKO OHARRA  
2017/05/02

## **Batzar Nagusiek "konponbide teknologikoa" eskatu dabe, ikusteko gaiztasunak dituen pertsonen Barik txarteleko saldoa zein dan ikusi ahal daien**

Bizkaiko Batzar Nagusiek eskaria egin deutsee gaur Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesinorako batzordean, Eusko Jaurlaritzari eta Bizkaiko Foru Aldundiari, “konponbide teknologiko egokiena definitu daien, ikusteko gaiztasunak dituen pertsonen euren Barik txartelean erabilgarri daukien saldoa ikusi ahal daien, bai Bilboko Metroan eta baita Bizkaibusen be”.

Bizkaiko Batzarrek aho batez onetsi dabe EAJ-PNV, PSE-EE eta Podemos Bizkaia taldeen artean gai horren inguruan adostu daben zuzenketa-eske transakzionala. Zuzenketa-eske horrek talde moreak aurkeztutako arauz besteko proposamena aldatu dau. Proposamen horretan, hasiera batean, garraio bietako makina baliobakotzaileetan aldaketak sartzea eskatzen zan, ikusteko gaiztasunak dituen pertsonen, Bizkaiko Garraio Partzuergoak (BGP-CTB) kudeatzen dauen ukipenik bako txartelean saldorik ete dagon ala ez ikusteko “hots sistema” gehitzeko.

EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek adierazo dabenez, operadore biek irisgarritasunari jagokoa arautegia “beteten daben” arren, bat datoz hobekuntza teknologikoan aurrera egiteko gogoetan, merkaduan dagozan konponbide guztiak aztertu ostean, azkenean, aukera “eraginkorra eta egokiena” aukeratu ahal izateko .

### **BERRIZKO ETA ZALDIBARKO TARIFA GUNEA**

Beste alde batetik, Vicente Reyes Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesinorako diputatuak batzordean adierazo dauenez, Berriz eta Zaldibar 4. tarifa gunera itzuliko dira datorren “maiatzaren 12an”, eta egun horretatik aurrera balioa galduko dauen aldi baterako tituluren bat daukien erabiltzaileek, oraindino kontsumidu barik daukien zenbatekoa itzultzeko eskatu ahal izango dabe. Geratzen jaken saldoa, aldi baterako titulua kargauta egoan txartel berean ordainduko jake.

Batzarretako Podemos Bizkaia taldeak eskatuta agerraldia egin dauen Vicente Reyesek hasieran gogorarazo dauenez, joan dan apirilaren 25eko tarifen integratzenorako batzordearen bileran udalerrri biak 4. gunean jarraitzea erabagi zan, “lurralde osorako erabagi orokorra hartu arte”. Erabagi hori, denpora gitxi barru Bizkaiko Mugikortasun Agintaritzak egingo dauen Bizkaiko mugikortasunaren azterlanaren ostean hartu beharko da. “Emoten dau arrazoizkoa dala Berriz eta Zaldibarrek orain arte euki daben tarifa gune berean jarraitzea, Bizkaia osorako behin betiko erabagia hartu arte”, adierazo dau. Reyesek gogorarazo dauenez, barriz, konponbide hori “salbuespena” da lurraldean, Euskotrenek jarraitzen dauen tarifen politikaren barruan.

Gai horri jagokonez, EH Bildu arauz besteko proposamen bategaz heldu da batzordera, Bizkaiko Batzar Nagusiek eskaria egin deioen BGP-CTBri, eragin ekonomikoaren inguruko txostena egin daian, Bizkaiko garraio publikoaren zonifikazio mapatik 5. gunea kentzeak operadoreengan izango leuken eragina aztertzeko, eta holan arazo hori behin betiko



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

konpontzeko. Ekimena ez da onartu, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeak kontra agertu diralako. Podemos Bizkaia koalizino abertzalearen proposamenaren alde agertu da, eta PP eta Talde Mistoa abstenidu egin dira. Halanda be, EH Bildu pozik agertu da, azterketa hori Reyesek iragarri dauen azterlan “orokorraren” barruan egingo dalako.

#### MUNGIALDERAKO ZERBITZUA

Bizkaiko Batzarrek Podemos Bizkaia taldearen beste ekimen bi be atzera bota ditue. Alde batetik, talde moreak eskaria egin dau, Aldundiak Bakiotik eta Mungiatik aireportura Bizkaibuseko zerbitzu bat jarri daian; eta bestetik, Mungialdean, asteburuetan zerbitzua eskiniko dauen Bilborako gaueko zerbitzua jarteko aukerea “aztertu daian”. Ekimenetako bat be ez da onartu, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek osatzen dabon gehiengoak kontrako botoa emon dauelako.

Aireportura joango litzateken zerbitzu barriari jagokonez, Foru Gobernua eusten dabon talde bien eretxiz “gehiago izango litzatekez horren kaltea jasoko leukien pertsonak, mesedea jasoko leukienak baino”, dagozan lineen gaur egungo ibilpidea “5,5 kilometrotan eta 10 eta 15 minutu artean” luzatzea eragingo leukelako. Jeltzaleek eta sozialistek esku artean dituen datuek erakusten dabenez, Bakiotik eta Mungiatik aireportura egunero egongo litzateken eskaria “50 bidaiari” ingurukoa da.

Mungia eta Bilbo arteko gaueko zerbitzuak ezarteari jagokonez, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen kontrako eretxia, eskari “urrian” eta mobikortasun hori “derrigorrezkoa ez izatean” oinarrizten da. “Orokorrean”, Bizkaian gaueko eskaintza trenbide sarearen bitartez eskintzen da, azaldu dabenez, eta sare horrek Bizkaiko biztanleriaren “%90” hartzen dau. Talde biek balioan jarri dabenez, gaur egun, Bilbo-Mungia Bizkaibuseko lineak eskintzen ditu daborduko gaueko zerbitzuak 23:30etik 01:30era, eta urtero zerbitzu horreek indartu egiten dira Aste Nagusian eta Mungiako jaietan.

#### EZEZKOA BERMEORA DOAN LINEA INDARTZEARI

Bukatzeko, Garraioetako Foru Diputatu jaunak, Bermeoko Udalak Bizkaibusen A3527 linearen maiztasuna bikoizteko egin dauen eskariaren batzordera ekarri dauen EH Bilduren itaunari erantzunez, “gaur egun dagon zerbitzua kontuan izanda”, proposamen horrek “ez daukala lehenetasunik” esan dau. Bere ustez, gaur egun dagon eskintzea –ordubetez behingo maiztasuna astelehenetik zapatuetara eta ordu biz behingoa jaiegunetan– “egokia da” dagon eskarirako. Gainera, Bizkaibusen eskintzari, trenak “ordu erdiz behin” eskintzen dituan Euskotrenen linea gehitzen jako. Eta gogorarazo dauenez, “abuztuan” linea horrek loturea eskiniko dau 3. lineagaz Etxebarrin.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

NOTA DE PRENSA  
02/05/2017

## **Las Juntas Generales piden una "solución tecnológica" para que las personas con discapacidad visual puedan conocer el saldo de la Barik**

Las Juntas Generales de Bizkaia han instado hoy, en la comisión de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, al Gobierno Vasco y a la Diputación Foral de Bizkaia, “a definir la solución tecnológica más adecuada para que las personas con discapacidad visual puedan conocer el saldo disponible de su tarjeta Barik, tanto en Metro Bilbao como en Bizkaibus.”

La Cámara vizcaína ha aprobado por unanimidad una enmienda transaccional acordada entre PNV, PSE-EE y Podemos Bizkaia en este sentido, que venía a modificar una proposición no de norma presentada por el grupo morado en la cual se pedía inicialmente cambios en las máquinas canceladoras de ambos transportes “para incluir un sistema acústico” que avisara a las personas con discapacidad visual de la inexistencia de saldo en la tarjeta sin contacto que gestiona el Consorcio de Transportes de Bizkaia (CTB).

PNV y PSE-EE han advertido que, pese a que ambos operadores “cumplen” con la normativa en materia de accesibilidad, comparten la reflexión de avanzar en la mejora tecnológica una vez que se analicen las distintas soluciones existentes en el mercado para implementar, a posteriori, la opción que resulte “más eficaz y adecuada”.

### **AREA TARIFARIA DE BERRIZ Y ZALDIBAR**

Por otro lado, el diputado foral de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, Vicente Reyes, ha señalado en la comisión que los municipios de Berriz y Zaldibar volverán a la Zona tarifaria 4 el próximo “12 de mayo” y que aquellas personas usuarias en posesión de algún título temporal que caduque después de esa fecha, podrán solicitar la devolución del importe que aún les quede por consumir. El saldo restante les será reembolsado en la misma tarjeta en la que estaba cargado el título temporal.

Vicente Reyes, que ha comparecido a petición del Grupo Juntero Podemos Bizkaia, ha comenzado su intervención recordando que en la reunión de la comisión de integración tarifaria del pasado 25 de abril se aprobó mantener a ambos municipios en la Zona 4, "hasta que haya una decisión definitiva de carácter global para todo el territorio" que habrá de adoptarse tras el estudio de movilidad en Bizkaia que próximamente realizará la Autoridad de Movilidad de Bizkaia. "Parece razonable que mientras no haya una decisión definitiva para toda Bizkaia, Berriz y Zaldibar se mantengan dentro de la misma zona tarifaria que han tenido hasta ahora", ha señalado. Reyes ha recordado, sin embargo, que dicha solución supone una “excepción” en el territorio dentro de la política tarifaria que sigue Euskotren.

En este sentido, EH Bildu llegaba a la comisión con una proposición no de norma para que la Cámara vizcaína instase al CTB a elaborar un informe de impacto económico para determinar cómo afectaría a los operadores la eliminación de la Zona 5 dentro del mapa de zonificación del



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

transporte público de Bizkaia y así resolver esta problemática. La iniciativa ha sido desestimada por el rechazo de PNV y PSE-EE. Podemos Bizkaia ha apoyado la propuesta de la coalición abertzale, y PP y grupo Mixto se han abstenido. Aún así, EH Bildu se ha alegrado de que dicho análisis se haga en el marco de ese estudio “global” anunciado por Reyes.

#### SERVICIO A MUNGIALDEA

Asimismo, el Parlamento vizcaíno ha rechazado otras dos iniciativas de Podemos Bizkaia para que, por un lado, la Diputación pusiera en marcha un servicio de Bizkaibus al aeropuerto desde Bakio y Mungia, y, por otro, “estudiase” la implantación de un servicio nocturno de autobús los fines de semana entre Mungialde y Bilbao. Ambas iniciativas han sido tumbadas por la mayoría de PNV y PSE-EE.

Sobre el nuevo servicio al aeropuerto, los dos grupos que sustentan al Gobierno foral creen que serían “más las personas perjudicadas que las beneficiadas” puesto que supondría incrementar “en 5,5 kilómetros y entre 10 y 15 minutos” el recorrido actual de las líneas existentes. Según los datos que manejan jeltzales y socialistas, la demanda diaria al aeropuerto desde Bakio y Mungia alcanzaría los “50 viajeros”.

En relación a la implantación de servicios nocturnos entre Mungia y Bilbao, la negativa de PNV y PSE-EE se fundamenta en la “escasa” demanda y en que dicha movilidad “no es obligada”. Con carácter “general”, en Bizkaia la oferta nocturna se ofrece a través de la red ferroviaria, han explicado, la cual cubre al “90%” de la población de Bizkaia. Ambas formaciones han puesto en valor que, actualmente, la línea de Bizkaibus Bilbao-Mungia ofrece ya servicios nocturnos desde las 23:30 horas y hasta la 01:30 horas, que son reforzados todos los años en Aste Nagusia y en las fiestas patronales de Mungia.

#### NEGATIVA A UN REFUERZO DE LA LÍNEA A BERMEO

Por último, el diputado foral de Transportes, en respuesta a una pregunta de EH Bildu que traía a la comisión la demanda del ayuntamiento de Bermeo para duplicar el servicio de Bizkaibus a la capital vizcaína, ha dicho que dicha propuesta “no es prioritaria teniendo en cuenta el servicio existente”. Cree que la oferta actual –frecuencia de una hora de lunes a sábados, y de dos horas, los festivos- se “adecúa” a la demanda. A la oferta de Bizkaibus, se le une además la línea de Euskotren que ofrece trenes “cada media hora”. Y ha recordado que “en agosto” esta línea ofrecerá una conexión en Etxebarri con la línea 3.